

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### LAN ETA ENPLEGU SAILA

## 5191

*EBAZPENA, 2020ko azaroaren 23koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez deialdi publikoa ebazten baita Zuzendariordetza Teknikoko zuzendariordearen lanpostua izendapen askearen sistemaren bidez betetzeko.*

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.3.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Osalaneko Zuzendariordetza Teknikoko zuzendariorde lanpostua izendapen aske bidez betetzeko deialdi publikoa egiten duen Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2020ko urriaren 1eko Ebazpenaren laugarren oinarrian (2020ko urriaren 19ko EHAA, 205 zk. duena) xedatutakoarekin bat etorriz,

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Francisco Javier Inda Ortiz de Zarate jauna Osalaneko Zuzendariordetza Teknikoko zuzendariorde izendatzea (kodea: 512006; dotazio zk.: 3).

Bigarrena.– Izendapen horrek 2020ko azaroaren 23tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakiok eman duen organoari, hilabeteko epean, edo administraziorikiko auzi-errekurtsoa, Administraziorikiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Barakaldo, 2020ko azaroaren 23a.

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusia,  
MARÍA LOURDES ISCAR REINA.